

# “GERNIKA GOGORATUZ” BAKEAREN ALDEKO AZTERTEGIAREN ESTATUTUAK

## I TITULUA: Oinarrizko Printzipioak

### **1. artikulua.-**

Gernika-Lumoko GERNIKA GOGORATUZ BAKEAREN ALDEKO AZTERTEGIAREN –1987ko urriaren 6an G/741/87 erregistro zenbakiarekin inskribatutakoa-- estatutu hauek aldatu egin dira otsailaren 12ko 3/1988ko Elkarteei buruzko Legean xedatutakoarekin eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoarekin bat etorriz, halaxe ezartzen baita Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 9. eta 10.13 artikuluetan.

Irabazi asmorik gabeko Elkarte hori honako manuen bidez arautuko da: elkarteei buruzko legeak, Estatutu hauek Legearekin bat datozenak; gobernu organoek hartutako erabakiak, Legearen edota Estatutuen aurkakoak ez badira; eta azkenik, Eusko Jaurlaritzak onartutako erregulamenduzko xedapenak, ordezkotza izatera soilatik izango dutenak.

### **2. artikulua.-**

Elkarte honen xedea munduan eta Euskal Herrian bake askagilea eta bidezkoa lortzen laguntzea da. Horretarako, Gernika Gogoratuz Fundazioa lagunduko dugu bere helburuak bete dituzan.

Helburu horiek betetzeko, honako jarduerak hauek egingo dira, betiere, legezko betekizun guztiak bete eta gero:

- a) Gernika Gogoratuz Fundazioaren zuzendaritzan parte hartuz.
- b) Gernika Gogoratuz Fundazioaren helburuak betetzen direla zainduz.
- c) Gernika Gogoratuz Fundazioak gizartearekin zein bestelako elkarteekin (zientifikoak kasu) eta mugimenduekin duen lotura sustatuz, hala Euskal Herrian, nola Euskal Herritik kanpo.
- d) Gernika Gogoratuz Fundazioaren bidez, bere helburuetan interesatutako pertsonen jokalekua eskainiz eta bere alde lan egiteko prest daudenekin lotura sustatuz.
- e) Gizarteari elkarteak begi onez ikusten dituen bakearen aldeko ahalegin mota guztiak proposatuz, abiaraziz eta lagunduz.
- f) Gernika Gogoratuz Fundazioaren jarduerak guztietan parte hartzea, berak hala eskatzen duenean.

### **3. artikulua.-**

Elkarteak ez du irabaziak lortzeko asmorik. Eskuratzen dituen diru sarrerak, bere jatorria edozein delarik, elkartearen sostengatzera eta bere xedea betetzera bideratuko dira.

### **4. artikulua.-**

Gernika Gogoratuz Elkarteak bere zereginak, batik bat, Euskal Herrian garatuko ditu.

### **5. artikulua.-**

- 1.- Elkartearen helbidea honako hau da: Artekale, 1 – 1. solairua – GERNIKA. Bertan jarriko dira administrazio bulegoa eta Zuzendaritza Batzordearen egoitza. Ezohiko Batzar Nagusian hala adostuz gero, Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ahalko ditu autonomia erkidegoan zein autonomia erkidegotik kanpo.
- 2.- Elkartearen egoitzaren eta Elkarteak dituen beste lokaletako helbide aldaketak Zuzendaritza Batzordeak erabakiko ditu eta Elkartearen Erregistroari jakinaraziko zaizkio.

## II TITULUA: Gobernu Organoak eta Administrazioa

### **6. artikulua.-**

Elkartearen Gobernu organo hauen esku egongo da:

- a) Organo gorena: Bazkideen Batzar Nagusia.
- b) , Etengabeko zuzendaritzarako taldeko organoa: Zuzendaritza Batzordea.
- c) Presidentea:

## **1. Kapituluua. Batzar Nagusia**

### **7. artikulua.-**

Batzar Nagusia bazkide guztiek osatzen dute eta organo horren bidez adierazten dute beren borondatea. Batzar Nagusiak ohiko zein ezohiko bilerak egiten ditu.

### **8. artikulua.-**

Ohiko Batzar Nagusia urte bakoitzaren 3. lauhilekoan egingo da, Zuzendaritza Batzordeak erabakitako datan eta orduan. Bertan onartu behar dira honako puntu hauek: Elkartearen jarduera plana, aurreko urteko gastu eta diru sarreraren kontuaren egoera, hurrengo ekitaldiaren aurrekontua eta Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa, Batzar Nagusiaren irizpideekin bat eta haren kontrolpean aritu behar dena.

Halaber, Ohiko Batzar Nagusiari dagozkio honakoak:

- 1.- Estatutuak moldatzea eta aldatzea, hurrengo artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.
- 2.- Zuzendaritza Batzordea hautatzea.
- 3.- Elkartea desegitea, hala badagokio.
- 4.- Bestelako Elkarrekin Federazioan eta Konfederazioan bat egitea, edo horietariko batetik ateratzea.

### **9. artikulua.-**

Ohiko Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordeak hala adosten duenean edo bazkideen laurden batek hala eskatzen duenean egingo dira. Horretarako, biltzeko arrazoia eta helburua adieraziko dira, eta hala behar izanez gero, honakoei buruzkoak ezagutzeko eta erabakitzeko:

- Estatutuak moldatzea.
- Elkartea desegitea.

### **10. artikulua.-**

- 1.- Batzar Nagusietarako deialdia, hala ohikoetara zein ezohikoetara, Elkartearen presidenteak egingo du, gutxienez 15 egun lehenago.

- 2.- Deialdia egitean Eguneko Gai Zerrenda aurkeztuko da. Gai zerrenda hori Zuzendaritza Batzordeak edo, bestela, Presidenteak ezarriko du. Horretarako, bazkideen laurdenaren abala duten eskabideak jasoko ditu, gutxienez 48 ordu lehenago.

#### **11. artikulua.-**

- 1.- Batzar Nagusia Elkartearen bazkide guztiek osatuko dute.
- 2.- Bazkide bakoitzak beste bazkide aktibo baten esku utzi ahal izango du botoa.
- 3.- Elkartearen Presidenteak izango da Batzar Nagusiaren buru. Berak zuzenduko ditu bilerak eta moderatuko eztabaidak. Presidenteak egon ezean, bere funtzioak Presidenteordeak beteko ditu.

#### **12. artikulua.-**

- 1.- Batzar Nagusiak, ohikoak zein ezohikoak, lehenengo deialdian eraz osatzeko, bertaratuen eta ordezkatuaren artean bazkideen erdia gehi bat pertsona bildu behar dute, eta bazkideen herena, gutxienez, bigarren deialdian.
- 2.- Lehenengo eta bigarren deialdiaren artean gutxienezko epea ordubetekoa da.

#### **13. artikulua.-**

- 1.- Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratutako zein ordezkaturako bazkide gehienek aldeko botoaz hartuko dira.
- 2.- Hala ere, bertaratu edota ordezkaturako bazkideen bi herenak aldeko botoa eskatuko da honakoetarako: ondasunak erabiltzeko eta besterenganatzeko, Presidenteak eta Zuzendaritza Batzordeko beste kideak izendatzeko, herri onuradun elkarteak izaera aitortzeko eskabidea egiteko, Federazioak osatzeko edo horrelakoekin bat egiteko erabakia hartzeko, estatutuak moldatzeko eta Elkartea desegiteko. (Ezohiko Batzar Nagusia).
- 3.- Bazkideek Batzar Nagusietan parte hartzeko euren ordezkariak beste bazkide baten esku uzteko aukera dute. Ordezkaritza hori idatziz adierazi behar da, eta Batzarraren Idazkariaren esku jarri behar da bilera hasi baino 48 ordu lehenago gutxienez.

## **2. Kapituluua. Zuzendaritza Batzordea**

### **14. artikulua.-**

- 1.- Zuzendaritza Batzordea honako kide hauek osatzen dute: Presidentea, Presidenteordea, Idazkaria, Diruzaina eta Batzordekideak (gehienez bost).
- 2.- Zuzendaritza Batzordearen karguak beti izango dira doakoak, hau da, ezin da izan kontratu bidezko harremanik Zuzendaritza Batzordearen kideen eta Elkartearen artean.

### **15. artikulua.-**

- 1.- Zuzendaritza Batzordeko kideak Batzar Nagusiak izendatuko ditu urteroko Ohiko Batzar Nagusian, baina onartzen da berriro lehengoak hautatzea.
- 2.- Aurreko idatz zatian adierazitako izendapenak honela egingo dira:
  - Presidentea, Idazkaria eta bokalen %50, urte bikoitietako Ohiko Batzar Nagusietan aukeratuko dira hautapen bidez eta kargua utzarazteko ere bide horri jarraituko zaio..
  - Presidenteordea, Diruzaina eta bokalen gainerako %50a, berriz, urte bakoitietako Ohiko Batzar Nagusietan hautatuko dira.
- 3.- Zuzendaritza Batzordea eratzeko, baldintza hauek bete behar dira:
  - a) Estatutuetan ezarritako moduan hautatua izatea.
  - b) Erakundearen bazkidea izatea.
  - c) Adinez nagusia edo adinez txikiko emantzipatua izatea, eta eskubide zibil guztiak edukitzea.

### **16. artikulua.-**

1. Zuzendaritza Batzordeak urtean behin bildu beharko du gutxienez, baina baita elkartearen jarduera egokiro garatzeak hala eskatzen duen guztietan ere.
2. Deialdia egitea Presidenteari dagokio, eta Gai Zerrendarekin batera, bilera baino gutxienez 3 egun lehenago egin beharko du.
3. Justifikatzen ez bada, Zuzendaritza Batzordearen bileretara ez etortzeak --hiru bider jarraian, edo bost tarteka--, kide izateari uztea ekarriko du.

## **17. artikulua.-**

Zuzendaritza Batzordeko kideek euren kargua utziko dute honelakoetan:

- a) Agintaldia amaitzean.
- b) Dimititzean.
- c) Bazkide izateari uztean, edo ezgaitasun egoeran sartzean.
- d) Batzar Nagusiak adostutako berrikuntzari ekitean, estatutu hauen 16. artikulua ezarritakoaren arabera.
- e) Heriotza.

a) atalean adierazitako arrazoiengatik kargua uzten denean, Zuzendaritza Batzordeko kideek beren zereginetan jarraituko dute lehenengo Batzar Nagusia burutu arte, batzar horretan hautatuko dira-eta kargu berriak.

b), c), d) eta e) kasuetan, Zuzendaritza Batzordeak berak beteko du hutsik dagoen kargua behin behineko izendapenaren bidez; Nolanahi ere, Batzar Nagusiak berresteko edo atzera botatzeko aukera izango du. Horrela gertatuz gero, beste norbait izendatuko da.

Organo honen osieran izandako moldaketa guztiak jakinaraziko zaizkio Elkartearen Erregistroari.

## **18. artikulua.-**

1.- Zuzendaritza Batzordearen bilerak eraz osatzeko, lehendabizi, deialdia egingo da eta kideen erdia baino bat gehiago bertaratu.

2.- Hala ere, Zuzendaritza Batzordea deialdirik gabe ere eratu ahal izango da. Horretarako, baina, kide guztiak bildu eta aho batez onartu behar da.

## **19. artikulua.-**

Zuzendaritza Batzordeak honako eskumen hauek ditu:

- a) Elkarteko Gobernuaren erantzukizun osoa bereganatzekoa.
- b) Erakundea zuzentzekoa, Estatutuekin eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiekin bat etorriz.
- c) Bazkideak onartu ala ez erabakitzekoa, eta horiek kanporatzekoa, geroago Batzarrak berresteko.
- d) Dohaintzak eta dirulaguntzak onartzekoa.
- e) Kontratuak, akordioak, lankidetzak hitzarmenak eta diru laguntzak onestekoa.

- f) Bazkideek egindako proposamenei edo iradokizunei arreta ematekoa; eta, hala badagokio, horiek egikaritzeko behar diren neurriak hartzekoa.
- g) Bankuko kontuak irekitzekoa, horien jarraipena egitekoa eta ixtekoa; behar diren eragiketak egingo dituzten pertsonak izendatzekoa eta beren ahalmenak zehaztekoa.
- h) Elkartearen Ondasunak eskuratu, erabili eta aldatzeari buruzko negozio juridikoak egilestekoa.
- i) Urteko Aurrekontua prestatzekoa Batzar Nagusiak onartzeko.
- j) 11.2 artikuluekin bat, Batzarren gai zerrenda zehaztekoa.

### **3. Kapitulua. Pertsona bakarreko organoak**

#### **20. artikulua.-**

Elkarteko Presidenteak bere gain hartzen du elkartearen lege ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak nahiz Batzar Nagusiak hartutako erabakiak egikaritzeko ditu. Halaber, aipatutako organo bien buru izango da.

#### **21. artikulua.-**

Presidentearen esku geratuko dira Zuzendaritza Batzordea eta Batzar Nagusiaren esku geratu ez diren ahalmenak, honako hauek bereziki:

- a) Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak egin beharreko bilerak deitzea eta amaitutzat jotzea, bien arteko eztabaidak zuzentzea, eta, boto berdinketarik egonez gero, kalitate botoaz erabakitzea.
- b) Elkartearen jarduera plana Zuzendaritza Batzordeari proposatzea, bere jarduerak bultzatzeko eta zuzentzeko.
- c) Eraz adostutako ordainketak agintzea.
- d) Sortu daitezkeen premiazko gaiak konpontzea, eta Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea lehenengo bileran.

#### **22. artikulua.-**

Presidenteordeak Presidentearen eskumen berak izango ditu hori ez dagoenean.

#### **23. artikulua.-**

Idazkariaren eskumenak honako hauek dira: elkartean sartzeko eskabideak jasotzea eta tramitatzea, Bazkideen fitxategia eta Erregistro Liburua kudeatzea, Akta Liburua gordetzea eta idazketa zaintzea, Elkartearen taldeko organoen bilera guztien akta

jasotzea, eta bazkideei bilera horietan onartutakoaren berri ematea, Zuzendaritza Batzordeak adostutako eran.

Era berean, Elkarre gaitan indarrean daude lege xedapenak betetzen direla zaintzea, Erakundearen dokumentazio ofiziala zainduz, Liburuaren eta elkarrearen artxiboen edukia egiaztatuz, eta dagokion autoritatearen esku jarritz Zuzendaritza Batzordeak izendatzeari buruz eta elkarrearen helbidea aldatzeari buruz egin beharreko jakinarazpenak.

### III TITULUA: Zerbitzu Tekniko-Administratiboak

#### **24. artikulua.-**

- 1.- Elkarrearen jarduna garatu eta burutu ahal izateko, Bulegoa jarri dugu Elkarrearen egoitzan.
- 2.- Elkarreak funtzionatzeko behar diren laguntzaile guztiak kontratatuko ditugu.

### IV TITULUA: Bazkideei buruzkoa

#### **25. artikulua.-**

- a) Adinez nagusia izatea, eta jarduteko gaitasuna edukitzea.
- b) Elkarrearen jardueretan parte hartzea.
- c) Bi bazkidek bera onartzeko arrazoiak emanaz eskabidea egin izana eta Zuzendaritza Batzordeak onartu izana.

#### **26. artikulua.-**

Bazkideen betekizunak.

- a) Elkarrearen helburuak lortzen laguntzea estatutuak hitzez hitz betez.
- b) Batzar Nagusian onartutako kopuruak eta epeak zainduz ordaintzea Elkarrearen kuotak.
- c) Antolakuntza eta jardunari dagokionez, Zuzendaritza Batzordearen erabakiak onartzea eta zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea bere helburuak betetzeko.
- d) Emandako karguetan aritzea.

## **27. artikulua.-**

Bazkideen eskubideak.

- 1) Batzar Nagusietan ahoz eta boto bidez parte hartzeko eskubidea erabiltzea; horretarako, bere botoa beste kide batzuen esku utzi ahalko du.
- 2) Hautesle eta hautagai dela, Elkartearen zuzendaritza organoetan estatutuen arabera parte hartzea.
- 3) Ohiko Batzar Nagusietan Zuzendaritza Batzordearen erabakiak apelatzea, bai eta Ezohiko Batzar Nagusietan ere baldin eta kuotak ordainduta dituzten bazkideen laurdenak baino gehiagok eskatzen badu deialdia egitea. Erabakiak xedatu ziren bezala onartu behar dira apelazioak dirauen bitartean.
- 4) Elkarteari dagokion edozein jarduerari buruz egiten dituen proposamenak Zuzendaritza Batzordean aztertzea, baldin eta proposamenok idatziz aurkeztu badira.
- 5) Elkarteen Legearekin nahiz Estatutuekin bat ez datozen erabakiak eta egintzak aurkatzea egutegiko berrogei eguneko epearen barruan, demandatzaileak aurkatutako erabakiaren edukia ezagutu duen datan hasita.
- 6) Datu hauek eskuragarri izatea: elkartearen beste kideen identitatea; diru sarrera eta irteera kontuaren egoera; eta elkartearen jardueraren bilakaera.
- 7) Diziplinazko neurriak hartu baino lehen, norberaren iritzia idatziz helarazi ahal izatea, eta diziplinazko neurri horiek arrazoitzen dituzten zergatiak jakitea. Arrazoi horiek bazkide gisa dituzten betekizunei soilik dagozkie.

## **28. artikulua: Zehatzeko Araubidea.**

Zuzendaritza Batzordeak bazkideak zigortu egin ditzake baldin eta estatutuak edo Batzar Nagusiaren nahiz Zuzendaritza Batzordearen erabakiak behin eta berriz hautsi baditu.

Zehapenak 15 egunetik hilabetera arteko eskubide etenaldi eragin lezake, baina baita behin betiko kanporaketa ere (30. eta 33. artikulua).

## **29. artikulua: Bazkide Izaera Galtzea.**

Bazkide izaera honako arrazoi hauengatik galdu daiteke:

- 1) Heriotza dela eta.
- 2) Hala eskatzen duenean.
- 3) Urteko kuota ez ordaintzeagatik, dagokion urteko seigarren hilabeteko epemugara heldutakoan.
- 4) Zuzendaritza Batzordeak onartutako kanporatzeagatik, Estatutu hauek eragiten dituzten betebeharrak zein Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak behar den eran hartutako erabakiak behin eta berriz eta norbere borondatez, betetzen ez direnean.

## **30. artikulua.-**

Bazkideren batek azken inguruabar horretan huts eginez gero, dagozkion argibideak lortze aldera, Presidenteak Idazkariari aurreitazko eginbide jakin batzuk egiteko agindu ahalko dio. Argibide horiek azterturik, Presidenteak jardunbideak artxibatzeke agindu dezake; zehatzeko espedientea ezarri, 29. artikuluan aurreikusitakoaren arabera; edo kaleratzeko espedientea ireki.

Azken kasu horretan, idazkaria, egintzak onartu ostean, egozten zaizkionak azaltzen dituen idazkia emango dio interesatuari. Egotzitako egintza horien aurrean, interesatuak 15 eguneko epea izango du bere alde egoki deritzona alegatuz erantzuteke; edonola ere, epe hori amaitutakoan, Zuzendaritza Batzordeari emango zaio gaia aztertzeko ardura, eta berak ebatziko du, bere kideen 2/3ren quorumaz.

### **31. artikulua.-**

Kaleratzeko erabakia interesatuari jakinaraziko zaio, eta erabaki horren aurka errekurtsioa aurkez dezakeela adieraziko, lehenengo Batzar Nagusiaren aurrean, hain zuzen. Hurrengo hiru hilabeteetan deialdirik egin ezean, horrexetarako antolatuta beharko da. Bien bitartean, Presidenteak egotzitako bazkide gisa dituen eskubideak ordeztuko erabaki dezake, eta Zuzendaritza Batzordeko kidea izanez gero, bere kargua uztea ebatzi beharko du.

Kaleratzeko espedientea Batzar Nagusira eroanez gero, Idazkariak horren laburpena egingo du, horrela Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiari egotzitako pertsonak aurkeztutako idazkiaren berri eman ahal izango du eta, hartara, Batzarrak dagozkion erabakia hartzeko modua izango du.

### **32. artikulua.-**

Kaleratzeko erabakia --arrazoitua beti-- interesatuari jakinarazi behar zaio, eta uste badu erabakia Lege edo Estatutuen kontrakoa dela, Epaitegien aurrean bere eskubidea erabiltzeko aukera izango du.

Norberak nahi duelako edo zehapen baten ondorioz, bazkide bati Elkartetik kanporatuko dutela jakinarazten zaionean, betetzeke dituen betekizunak kitatzea eskatuko zaio.

## **V TITULUA: Araubide Ekonomikoa: Eraketaren Ondarea eta Aurrekontua**

### **33. artikulua.-**

Elkartearen ondarea 2.699.878 (BI MILIOI SEIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI) pezeta izango da.

### **34. artikulua.-**

Elkarteak bere egintzak garatzeko, aurreikusitako baliabide ekonomikoak honako hauek izango dira:

- a) Zuzendaritza Batzordeak adierazitako sarrera kuotak.
- b) Batzorde horrek adostutako aldizkako kuotak.
- c) Dagozkion ondasun eta eskubideen emaitzak, hala nola legearen arabera jaso ditzaketen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d) Zuzendaritza Batzordeak erabakitako jarduera zilegien bidez, Elkarteak eskuratutako diru-sarrerak, betiere estatutuek ezarritako helburuen barruan.

Elkartearen ekitaldia zein ekitaldi ekonomikoa urtebetekoak izango dira eta ekainaren 30ean itxiko dira urtero.

## **VI TITULUA: Estatutuak Moldatzea**

### **35. artikulua.-**

Estatuak moldatu daitezke Zuzendaritza Batzordearen ekimenez, edo horren erabakiz harpidetutako bazkideen 2/3ek hala eskatuta. Edonola ere, Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidez osatutako batzordea eratuko du bere irizpideei jarraiki moldatze proiektua idazteko. Halaber, proiektua amaitu beharreko epea zehaztuko du.

### **36. artikulua**

Behin moldatze proiektua ezarritako epearen barruan idatzita, egin beharreko lehenengo Zuzendaritza Batzordearen Gai Zerrendan sartuko du Presidenteak. Zuzendaritza Batzordeak onetsi egingo du edo, hala behar izanez gero, Batzordera itzuliko du berriro aztertu dezan.

Onetsiz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo Ez ohiko Batzar Nagusiaren Gai Zerrendan sartzea edo horretarako deialdia egitea erabakiko du.

### **37. artikulua.-**

Batzarraren deialdiari erantsita joango da Estatutu aldaketaren testua, bazkideek idazkaritzari egoki deritzen emendakinak zuzendu ahal izateko; horien berri emango zaio, hain zuzen ere, Batzar Nagusiari, betiere bilera egin baino zortzi egun lehenago idazkaritzaren esku baldin badaude.

Aldaketa proposamenak bakarka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz egingo dira eta beste testu bat izango dute aukeran.

## **VII TITULUA: Elkartea desegitea eta Elkartearen Ondarearen Aplikazioa**

### **38. artikulua.-**

Elkartea edozergatik deseginez gero, deialdia egin eta Ez ohiko Batzar Nagusiak hartu behar du erabakia. Organo horrek Batzorde Likidatzailea izendatuko du Zuzendaritza Batzordetik ateratako lau kiderekin, eta batzorde horixe arduratuko da fondoez.

Elkarreak, bazkideen eta hirugarrenen aurrean dituen obligazioak ordaindu ostean, elkartearen fondoan geratzen den soberakina, egotekotan, Gernika Gogoratuz Fundazioari emango dio.

### **39. artikulua.-**

Elkartea desegin egingo da:

- a) Bazkideek hala nahi dutelako: horrexetarako deitutako Ez ohiko Batzar Nagusian, bertaratutakoen gehiengo osoaren aldeko botoa.
- b) Kode Zibilaren 39. artikuluan zehaztutako arrazoiengatik.
- c) Epai bidez.